BALIO PROPOSAMENA

Guk konponduko dugun arazoa ur asko gastatzearena da, azken aldian ur asko kontsumitzen dela ohartu gara. Datuek, batazbeste honakoa diote: 10 minutuz dutxako ura irekita egon ezkero 200L ur gastatzen dira eta hortzak garbitzean, minutuko 250mL ur gastatzen dira. Komuneko bonbari ematean 8-10L inguru gastatzen direla ikusita, dutxa bakoitzeko 20 bonbari emateko aukera erabil ditzakegu.

Ingurunea ere gune askotan aldatzen ari dela ikusi dugu eta horren ondorioz Espainia hegoaldean zein erdialdean dauden lehorteak izan daitezkeela pentsatu dugu eta Espainiatik kanpo ere.

Komunean erabiliko den ura berrerabilia izango denez, uraren kontsumoa gutxitu egingo da eta ez da alferrik erabiliko. Beraz, luzera begira orain dauden ur arazoak murriztuko direlakoan gaude denen artean pixka bat emanez.

Gure lehiakideetatik bereiziko gaituena gure ingurunearekiko konpromisoa izango da, ez dugulako ezagutzen eta ez dugu aurkitu, komunean ura modu efiziente batean aurrezteko sistema eskaintzen duen enpresarik. Gainera, gure produktua erosten duten bezeroek ura aurrezteaz gain dirua ere aurreztuko dute.

Azken finenean, garrantzitsua iruditzen zaigu etorkizun ekologikoago bat lortzea eta horretarako garrantzitsua iruditzen zaigu gure produktuak eskainiko dituen aldaketa txikiak egiten hastea ez daukagulako beste planetarik eta daukaguna zaindu behar dugulako.

Prezioei dagokienez, gure produktu bakoitzak 550€ balioko du eta instalazioak 50€ beraz; guztira gure zerbitzuagatik 600€ inguru ordaindu beharko dute gure bezeroek, dena barne. Horrela, denborarekin egindako inbertsio berreskuratuko du bezeroak, hilabetero uraren fakturan aurreztutako diruarekin.